

## KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAK 2009KO EKAINAREN 23AN EGINDAKO BILKURAREN HITZEZ HITZEKO TRANSKRIPZIOA

*Arratsaldeko laurak eta hogeitabederatzian  
hasi da bilkura*

**LEHENDAKARIAK** (Atutxa Iza): Arratsalde on.

Hasiera emango diogu batzorde honi Kultura eta Gazteria Batzordeari eta lehenengo puntua "2009ko maiatzaren 27an egindako eratze bilkuraren akta eta irakurri, eta hala badagokio, onestea". Irakurrita izango dugu guztiok. Beraz, onartzen da? Bale.

Bigarren puntua eta hirugarrena gai berari buruzkoak direnez, beste batzordeetan egin den bezala, elkartu egingo ditugu. Beraz, sailburu anderea zurea da hitza.

**KULTURA SAILBURUAK** (Urgell Lázaro): Eskerrik asko. Ez dakit entzuten den. Bai?

Buenas tardes. Voy a –si le parece bien al presidente de la Comisión–, voy a proceder a presentar a la parte del equipo que me acompaña y luego ya iniciaré la comparecencia.

A mi derecha está Josean Blanco, director del Gabinete y de los Medios de Comunicación Social, y a mi izquierdo Antonio Rivera, viceconsejero de Cultura, Juventud y Deporte, y Ramón Mario Etxazarreta, viceconsejero de Política Lingüística.

Lehendakari jauna, batzordekide jaun andreok, batzorde honen aurrera etorri naiz Kultura Sailak datozen urteotan garatuko duen politikaren abiapuntu filosofiko eta ardatz edo ildo nagusien berri ematera. Nire lehen hitzak ordea, joan den ostiralean ETAren terrorismo koldar, anker eta antzuak hil zuen Eduardo Pueyes García euskal herritarra gogoratu eta gorazarre egiteko izango dira, bai eta, nola ez haren familiari, lehenik, eta estatuko Segurtasun Indarrei eta Ertzantzari dolumina eta elkartasunik hurbilena adierazteko ere, neronen eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren izenean.

Guztiei, eta batzorde hau osatzen duzuenoi ere, berretsi nahi dizuet gure sailak tinko eta kemen osoz lan egingo duela dagokion alorrean terrorismoaren arrazoi gabekeriaren orri beltza behin betiko atzean uzteko. Bortizkeriaren kultura esamoldea erabiltzen da batzuetan gure herriak jasaten duen fenomeno lazgarri hori inguratzen duen guztia izendatzeko, baina ezin topa daitezke zinez eta benetan elkarrengandik urrutiagoa dauden bi kontzeptu, kultura errotik baitago bortizkeriari



kontrajarrita erabateko antonimoa baita, guztiz bateraezina da eta sinetsita nago haren antidotoa ere badela, eta konpromezua hartzen dut nire ardura kargu berritik ahal ditudan ahalegin guztiak egingo ditudala hala izan dadin.

Hona ekarri gaituen egitekoari helduz, herritarren ordezkari den legebiltzar honen langintzan eta baita administrazioaren kudeaketa lanean ere erabat berriak denak erakutsi behar duen apaltasunarekin, hasi nahi dut nire agerraldia zuen lankidetzara eskatuz eta eskertuz, eta zuen ekarpenei errespetu osoz eta une oro abegi ona egingo diegan konpromezu formala hartuz, izan ere, zuen lankidetzara eta ekarpen horiek beharrezkoak izango baitituz nire ardura eta ibilbide berri honetan.

Are gehiago, kontuan izanda zuek, gehienok behintzat, esperientzia eta eskarmentu luzea duzuela herritarren ordezkari gisa ezezik, baita kudeaketa politikoaren ardurarik gorenetan ere. Konpromezu sendo eta irmo horren barruan sartu nahi dut, oro bat, agintaldi honetan Kultura Sailak oro har, eta neronek bereziki, ahalegin guztiak egingo ditugula bai legebiltzar honetan ordezkatuta dauden eta bai gizartean elkar bizitza baketsuan dauden askotariko sentiberatasun ideologikoak bat etortzeko moduko politikagintza bultzatzeko.

Politikagintza horren oinarri filosofiko nagusiak aipatzen hasita, ezin dezakegu aipatu gabe kultura hitza. Gizarte moderno eta ireki batean balio polisemikoa garatuz joan dela denborarekin, gero eta adiera gehiago ematen diolako gizarteak berak, gizarte hori gero eta anizkoiagoa den neurrian.

Tradizionalki, kulturatzat hartu dugu gizakiek eta gizarteek abstraktuaren esparruan sortu duten guztia, pentsamendua, edertasuna, sublime dena, hala idatziaren nola ahozkoaren, ikusizkoaren edo beste zer nahien bidez sortutakoa. Baina kultura ildo horretatik norbanakoen ihardueraren emaitzen batuketa edo metaketa hutsetik haruntzago doa, gizarte osoaren askotariko emaitza ere bai baita. Hori hala izanik, dimentsio politiko nabarmena ere badauka, bai norbanakoei eta baita haiek osatzen dituzten erkidegoei ere, edo nahi bada herriei, halako nortasun ezaugarri batzuk ere eransten dizkielako.

Horren bestez, kulturak badu halako proiektio sinboliko, ikoniko eta enblematiko bat, bai geure buruari eta bai geure inguruneari ere aditzera ematen diona zer garen eta nolakoak garen, bai eta zer eta nolakoak izan nahi dugun ere, nola ulertzen dugun geure ingurua edota zer nolako garrantzia ematen diogun inguratzen gaituenari, eta gure aurreko belaunaldiek utzi diguten eta gure ondorengoei utzi nahi diegun era guztietako ondareen multzoari.

Baina kultura ez da soilik nortasunari loturik dagoen zerbait, kulturak ez dizkigu soilik halako edo bestelako nortasun ezaugarri batzuk ematen edo ezaugarri horiek besteren aurrean azpimarratzen eta finkatzen. Kultura ez baita unibokoa, adiera bakarrekoa, geldia eta itxia, aldaezina eta endogamikoa. Benetakoa kultura, ezin liteke bestela izan, gainera, zerbait bizia eta dinamikoa da, aldakorra eta askotarikoa, irekia eta baita kontraesankorra ere. Horregatik, kultura ezinbestean askea da eta ezin da inposatua izan. Norbanakoak eta gizarteak askeago bihurtzen

ditu eta gai bihurtzen ditu inguruko errealitateaz beren buruari galderak egiteko eta bide horretatik errealitate hori gainditu eta eraldatzeko.

Hori hala izanik, bistan da askatasunik gabeko kulturarik ez dagoela, gure herriaren beraren historiako urterik ilunenek ongi erakutsi ziguten bezala. Honek esan nahi du gizarte demokratiko, ireki eta aske batean kulturak gizarte horren beraren aniztasunaren adierazgarri izan behar duela, eta gai izan behar duela aldi berean iraganetik iritsi zaizkigun tradizioz onenak iraunarazteko eta tradizio horiek etengabe eguneratu eta etorkizunerantz proiektatzeko.

Baina baita gizarte garaikideak bere baitan sortzen naiz beste nonbaitetik eskuratzen dituen tradizio eta balio berriak bultzatzeko ere. Sail honek bere ihardueraren oinarrizko lehen ardatza izango du, esan dudanaren bidetik, kultura berez dela garrantzitsua, ez dela bakarrik halako nortasun bat eraikitzeke tresna bat, edo herri baten sinbologia edo ikonografia finkatzeko edo hedatzeko lanabesa.

Gure politikaren filosofia nagusi izango da kulturak berezko balioa duela, eta kultura izan behar duela xede, mugarri eta marra. Oro har, kultura horrela ulertzen badugu, euskal kultura deitzen duguna ere askotarikoa, irekia eta askea dela esaten ari gara eta beraz gurea bezalako gizarte ireki eta askotariko baten adierazpide izan behar du.

Garrantzia eman die, nola ez, gure tradizioei eta beste herrien aurrean bereizten gaituenari, baina orobat gure errealitatea ulertzeko, adierazteko, berregiteko eta hobetzeko modu desberdinak islatu behar ditu. Eta oraingo, nahiz etorkizuneko euskal herritar berrien ekarpenak errespetuz bereganatu, zaindu eta sustatu behar ditu.

Horrela bakarrik izan daiteke kultura bizia, kultura indartsu eta osasuntsua, gaurkotasunean sendo sustraitua eta etorkizunerantz proiektatua. Euskal kulturak denbora luzea igaro behar izan du bere buruari begira, bere baitara bildua, esanahi murriztu eta murriztaile batekin askotan, eta hori egoki izan da eta zuzen ezinbesteko zorra baita hori berpizteko ahaleginean diharduen edozein kulturarentzat.

Baina euskaldunon kulturak beste aro batera igaro beharra dauka orain, bere esanahia zabaldu eta aberastu beharra dauka, orain egokitu zaigun garaia eta ingurune berriari egokituz, sustrai sendoekin modernotasunerantzko jausia emanez.

Bestela esanda, euskal herritarrok bagara izan, beste herri guztiak bezalaxe, halako kultura, halako historia, halako tradizio berezi batzuen eroale eta oinordeko eta horien bizi iraupenean kate luze baten kate begi izateko ardura dugu. Baina era berean kultura, historia eta tradizio horiek odol berritu eta bizi berritu behar ditugu, guregandik kanpora ere begiratzuz munduko beste herrietatik datozkigun ekarpenik onenak guretzat eta gure artera etorri diren herritar berrien kultura adierazgarri onenak errespetuz gutartzen.



Askotariko ekarpen horien arrago horretatik ateratako emaitzak bakarrik lagun diezaiguke errealitate berriekiko jakinmina gure baitan ernatzen eta datorkigun mundu globalari beldurra galtzen, ezinbesteko baldintzak baitira horiek herrialderik aurreratuenetako herritarren artean parez-pare egoteko, askatasunez eta berdintasunean, gure nortasuna osatzen duten askotariko izaera desberdinak galtzeko beldurrik gabe. Aldatzeko beldurraren ordez, berritasunekiko eta berrikuntzarekiko grina behar du euskal kulturak ere, euskaltasuna osatzen duen nortasunari edo haren espazio sinbolikoa hezur mamitzen duten nortasun desberdinei eusteko grina bezalatsu.

Bestalde, gaur egun bizitzen eta jasaten ari garen egoera ekonomiko zailean, gure sailak argi du, eta argi adierazi nahi dio euskal gizarteari, kultura inbertsio on bat ere badela, dimentsio ekonomiko garrantzitsuko baliabide bat dela eta ez garai hoberen zain sakrifika daitekeen osagarritzko apaingarri bat.

Kultura bizi indartsu batek indar handia eduki dezake krisialdien eztenak amuzteko, gure ondarerik garrantzitsuena den giza kapitala deitzen den horretan inbertitzea esan nahi duelako eta beraz oraingo kinka larritik duintasunez ateratzea lagun diezagukeelako eta halaber gaitasun handia duelako hainbat ekoizpen sektore bizi berritzeko, geure hiri eta herrien irudia bultzatzeko eta horrela bai geure begien aurrean eta baita munduko beste biztanleen begien aurrean ere hobetzeko.

Beste alde batetik, esan oi den bezala, krisi garaiak aukera garai ere badira eta ala izanik aukera hona izan daitezke kulturaren alorrean orain arte egin dugun ibilbideaz garenaz eta izan nahi dugunaz, daukagunaz eta ez daukagunaz eta behar dugunaz edo beharko ez genukeenaz ere gogoeta egiteko.

Urte (...) edo (...) urteetan gurea bezalako gizartea aberats edo ongizatatetxoetan joera izaten da beti gehiago eta gehiago pilatzeko, gehiago eta denetarik eduki nahi izaten dugu, horrelako zerbait gertatu zaigu guri ere, zergatik ez aitortu, euskal autogobernuaren 30 urteotan asko eta asko lortu dugu bai herri erakundeek ekimenagatik eta baita gizarte eragileek lan eskerga eta eskergarriagatik ere.

Kulturaren esparruan ere, (...) amets utzikoak ziruditenak lortu ditugu ugari eta alor ugarian gainera, artean, literaturan, musikan, kirolean, sorkuntza mota desberdinetan eta eskertzea eta aitortza sor dizkiegu gure oraingo ardura honetan gu baino lehenago ibili direnei, ala udal guztietan, nola hiru Aldundietan eta Jaurlaritzan ere lan ona denoren diren lorkuntza horien atzean lan bikaina egin dutenei.

Orain ordea ez urte edo behi argalen urteetan sartuta gaude eta egokiera hau oso aukerakoa izan daiteke nor gehiago edo beti gehiago horretan planto egiteko, arnasa hartzeko eta daukagun eta pilatuz joan garen guztia ondo edo gaizki kudeatzen eta probetxatzen ari ote garen hausnartzeko doikuntzak eta hobekuntzak sartze arren beharrezkoa bada.

Hain zuzen, hori egin nahi dugu gure sailean datorren aldi beti krisialdi garaian ohikoak diren mozketak eta artazi kolpeak egin ordez, eta egin nahi dugu, besteak beste, lehen esan dugun bezala, kultura potentzial ekonomiko guztiz probetxagarria duelako eta ez dugulako nahi kultura izan dadin askotan izaten den bezala krisi garaian ekonomiari ematen zaion lehentasunaren pagaburua.

Kultura sailaren oinarritzko beste ardatz bat izango da denon kultura eta denontzako kultura sustatzea euskal gizartea orainaren erronka eta desafioari aurre egiteko moduan jarriko duen kultura, askotariko gizarte baten nahi eta beharrei erantzuteko gai izango dena eta munduari irekia.

Hitz batean, kultura demokratiko bat, demokratikoagoa nahi baduzue, zergaren eta zer nahi izan dugun kontatzeko orduan gizartea osatzen dugun guztion aspirazio eta imaginario kolektibo desberdinei irekita egongo dena.

Beste aldetik, kultura demokratiko baten beste balio ezin besteko bat bakearen eta bakerako kultura da, gure politikagintzak lehentasunen artean izango duen zalantzarik gabe helburu hori.

Gizarte zuzen eta bidezko baten ezaugarriak behinenak diren tolerantzia, giza eskubideen utzi ezineko defentsa edo urkoarekiko enpatia jarritz gure jardura politikoaren erdigunean, elkarrizketa, pentsamendua eta artea izanik elkarren dogma bakarra.

Zentzu horretan euskal artistek eta kultura alorreko gizarte eragileek ezin diote bizkarra eman euskal herritarren bake nahiriari eta beren artea eta lana ezin besteko bide lagun izan daitezke bakea posible bihurtzeko ahaleginean.

Zuen laguntza eta ekarpenarekin bultzatu nahi dugun kulturak, kultura hurbila izan behar du bestalde, alegia funtsezko balioetat herritarren parte hartzea izango duenak eta herritarrengandik eta herritarrentzat sortutako politika garatuko duena eta aintzat hartuko dituen herritarren gizartean besoz besoz bizi diren sentiberatasunak kultura adierazpen guztiak eta gizarte horren berezko konplexutasuna.

Kultura sailaren ardura garrantzitsuenen artean dago bestalde hizkuntza politika deitu oi dena, aurrerago jorratuko dut gai hau luze eta zabalago, baina hasiera honetan utzidazue behintzat esparru honetan gure jardura bultzatuko duen espiritua azaltzen.

Behar beharrezkoa iruditzen zaigu puntu honi dagokionez autonomi estatutuan eta 82ko euskararen legean nagusitu zen adostasun giroa berreskuratu eta are zabalago egitea, eta ildo horretatik bat gatoz XXI menderako hizkuntza politikaren oinarriak izenburuz bultzatutako (...) irekiaren ondorengo txostenean aipatzen den adostasunean oinarritutako itun berrituaren ideiarekin.



Gure sailaren beste konpromezu irmo eta sendo bat izango da euskararen inguruzko oinarrizko adostasunak zabaltzea eta indartzea, gizartearen beraren barruko bat etortzeari lehentasuna emanaz kontzertu politikoaren beraren aurretik.

Gure autonomia erkidegoaren funtsezko ezaugarri da elebitasuna, gure gizartea ulertzerik ez dago elebitasunean eta elebitasunetik ez bada, eta edozein gobernu demokratikoren helburu izan behar du, euskal gizartea elebidun izaten jarraitzea.

Gure politika beraz elebitasunaren aldeko politika izango da eta politikagintza horretan Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen bi hizkuntzetako baten alde egiten den lana ez da inoiz ere izango eta ezingo du inor ere hartu bestearentzako kaltetzat. Hitzunen eta beraz herritarren eskubideak daude jokoan, eta guztiekiko eta guztien eskubideekiko errespeturik zorrotzena, baino ezin da izan gure jardueraren ipar orratza, askatasun eta berdintasunarekin batera.

Askotarikoaren baina baita kohesionatuta dagoen gurea bezalako gizarte bateanez bait dago askatasunik, berdintasunik ez dagoenean. Ez da berdintasunik ere askatasunik gabe, baita hizkuntzaren ikuspegitik ere.

Baina halaber, gizarte kohesionaturik ere ezin da egon baldin eta politikagintzaren edozein esparrutan eta beraz baita eta bereziki hizkuntza politikan ere administrazioaren jarduerak herritarren bizikidetzak baketsuak kaltetzen badu.

Alde honetatik, gure sailaren jarduera bereziki borrokatuko da askok hizkuntzen gatazka deitzen duten fenomenoaren aurka. Gure ezin utzizko helburua baita hemen ere hizkuntzen arteko bizikidetzak. Esan nahi baita hitzunen arteko bizikidetzak.

Horretarako garrantzitsua iruditzen zaigu kultura sailaren barruan euskal gizartearen elebitasunean sakontzen segitzea. Izan ere adostasuna eta bat etortzea ez baita inposa daitekeen ondasun bat, ideia eta jarrera desberdinen kontraste eta eztabaidatik baino atera ezin daitekeen sintesia baizik.

Adostasun espiritu hori eta erabateko errespetuan oinarritutako elkarlan jarrera hori zabaldu eta eskaini ere egin nahi genizkieke euskararen mintza esparruan dauden eskudun erakunde politiko desberdinei, hala gure erkidego barrukoei nola kanpokoei, bereziki Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Frantziako Euskal Herri partean edo Iparraldean administrazio esparruan daudenei ere.

Euskarak edozein kultura hizkuntzak bezalaxe bere gizartean bertan arnasa egin ahal izateko halako hedatze bat behar duen bezala, behar ditu oro bat ezagutza, proiektzioa eta ospea bere mugetatik kanpo ere.

Horretarako kementsu helduko diogu teknologia berrien desafioari balioko baitigu geure burua sarean jarriz (...) lurraldetasun edo mintza eremu kontzeptuak gainditzeko. Eta gure hizkuntzak gizaki ororen eskura jartzeko.

(...) euskal hitz izango da arrotz, entzun, ulertu, aztertu edo ikasi nahi duenarentzat. Hitzen eta hizkuntzen zibilizazioan euskarak bere txikian hizkuntza handi izan behar du, presentzia sendoarekin.

Horretarako legegintzaldi honetan estrategikotzat jotzen dugun lanabes eta egitasmorik onenetako bat jarriko dugu abian Etxepare Institutoa, bereziki babestuko dituen euskarari eta kulturari buruzko ezagutza molde guztiak eta nazioarte mailan zabalkundea eta proiektzioa ematera zuzendutako ekintza guztiak.

Ahal den neurrian zuzenduko ditugu haren ibilbidearen lehen pausuetan egindako hutsak eta haren osaketa burutuko dugu euskal gizartean merezi duen gardentasun guztiarekin. Eta haren jardunari dagokionez euskal herritarrek euskararen aldeko ahaleginetan behar dituzten berme guztiakin.

30 urteko autogobernuaren ondoren, nabaria eta ukazina da, euskal kulturak eman duen jauzi kualitatiboa, aski da atzera begiratzea 70eko hamarkadara, oroimenik gabe gogoratzeko garai hartako Euskadi hura. Hizkuntza politikarik ez zuena, kultura folklore hutsetik aruntzako ulertzeko biderik ez zuena, garaiko erakunde politikoaren utzikeria eta baita (...) ere gainditzeko ekinbide militante pertsonal eta kolektiboa besterik ez zuena.

Euskadi hark, jakina, ez zuen Guggenheim bat, Artium bat, Koldo Mitxelena kultur une bat, Euskalduna jauregi bat edo oraingo Kursaal bat, Euskadi hark ez zeukan artxibategi proiekturik, ezta euskal liburutegirik, edo gure kultura azpiegituren arauketa eta antolaketarik.

Ez herritarren eskaintza sortzaile bat eskaini edo eragiteko aukera bideratuko zuen azpiegitura sare egokirik, ez gogorik, ez askatasunik, eremu (...). Esan bezala, asko eta asko egin da, egin eta lortu da Eusko Jaurlaritzaren hiru Aldundien eta udal guztien ekimenari esker. Bai eta jakina eta batik bat gizartearen beraren herritarren ahalegin amaigabeagatik.

Horien horrela lau haizetara esan dezakegu gure herria, herri txikia bada ere kultura azpiegitura oso garrantzitsua duela esparru guztietan, arte plastikoetan, antzerki eta musika gintzan, museoetan, liburutegietan, kirolean eta abar.

Jaurlaritzaren ardurapeko jarduera esparrua zein den argi izan arren, egia da kulturaren aldeko jarduera publikoa sakabanaturik dagoela maila desberdineko erakundearen artean, Jaurlaritza bera, aldundiak, udalak eta abar.

Eta horren bitartez askotan gertatzen da halako lehia bat edo sortzen dela batzuetan nork protagonismo handiagoa eskuratzeko eta horrek baliabideak alferriki xahutzea dakar herritarren interesen kaltetan.

Hori dela eta, aurre pauso handi samarra litzateke denon arteko adostasuna lortzea bakoitzari zer dagokion finkatzeko eta denei dagokien egiteko ere zein den zehazteko.



Buru bide hauetan oinarrituta kultura sailaren gidatu behar duten lerro nagusian honako hauek izan behar dutela uste dugu. Batetik, kulturaren esparru horietako bakoitzaren errealitatea erlazionatu eta hierarkizatzea, gure museoen, gure liburutegi sistemaren, gure ondasunaren babesetik eta gainontzeko jarduera alorretatik herrialde baten ikuspegi bat atera dezagun. Eta ez bakarrik argazki nahasi lauso bat, hainbat eragilek egindako sorkuntza lanen metaketa lotura gabe batetik ateratakoa.

Bestetik, elkarrizketan hastea erakunde guztiekin, aldundi eta udalekin bereziki haiek baitituzte hurbileneko kultura garatzeko eskumenak. Bai eta erakunde pribatu eta gizarte eragileekin ere, denon arteko elkarlana bultzatuz eta bakoitzak bere aldetik garatutako ekinbide sakabanatuak saihestuz. Kulturarako benetako azpiegitura eta zerbitzu sare bat sortzeko herritar guztientzat.

Besteak beste, biblioteken katalogo eraginkor bat, irakurketa bultzatzeko sistema hobea, herritar guztientzat irekitako artxibategien digitalizazio funtsa, antzoki sare eraginkorra, museo sare duin bat, gure talentu eta sortzaile gazteen sustapen lan egokia edo kultura ondarearen alorreko iharduerak ahalik eta oztoporik txikienekin gauzatu ahal izatea.

Alde honetatik, orain dagokigun egitekoa ez da izango kultura azpiegitura berri gehiago eraikitzea museoak, liburutegiak, kultur guneak, baizik eta behar den gogoeta partekatua egitea inplikaturik dauden erakunde eta eragile publiko eta pribatu guztiekin orain dauzkagun azpiegitura horiei etekin gehiago ateratzeko, eraginkorrago eta sozialki errentagarriago ere bihurtzeko. Hori dena, jakina, dagoeneko hartuta dauden eta hartzeko ditugun konpromezuetan hutsik egin gabe.

Era berean, gobernuen kultura ihardueran paper garrantzitsuegia ematen zaien diru laguntzez harantzagoa doan politika sendoago eta arduratsuago baten aldeko apustua egin nahi dugu. Administrazioak zabalik eduki behar ditu ateak kultura eragileen ekinbide pribatu edo publikoa bultzatzeko, baina bere egitekoa eta erabakiak ezin dira horretara mugatu, argi utzi behar du zein erantzukizun hartzen duen bere gain, halako edo holako proiektuen alde eginez eta proiektu desberdinen hierarkia erabakiz.

Lehenago azpimarratu dut kulturak ere baduela dimentsio ekonomiko nabarmenik ere, baina kulturaren funtsezko helburua ezin izan daiteke ekonomia suspertzea, nahiz eta kulturak ere parte hartu behar duen lurralde bakoitzaren garapen estrategietan. Ez dezagun ahantz, izan ere, ondarea eta kultura funtsezko parametro batzuk direla gizartearen bizi maila neurtzeko. Horrekin batera, gure herrian kulturak duen eta izan behar duen nagusitasun eta paper estrategikoa ere azpimarratu nahi dugu, argi uzteko ekonomiaren ahulaldi batean kultura ezin dela izan mozketak jasango izan dituen lehena, eta gutxiago bakarra, bahituran utz daitekeen luxuzko ondasun bat balitz bezala.

Kultura ondarearen esparruan, gaur egun inbentariatzen eta kalifikatzen diren erreferentzien kopurua nabarmenki handituko duen prozedura bat jarri behar dugu abian. Kultura ondarea babesteko egitarau bat taxutu eta garatu beharra dago, hainbat urtera begira lan egiteko erak eta erakundeen arteko harreman bideak aldatuz. Aipatutako helburu hori benetako errealitate bat izan dadin eta ez asmo oneko baina bete ezineko amets hutsa.

Egitarau horrek, batetik, monumentuak eta monumentu multzoak izendatzeko dauden mekanismoak aktibatu eta egikaritu egin beharko ditu eta, bestetik, inbentario eta katalogoak berrikusi eta gaurkotzeko tresna modernoak eskura jarri. Bide horretan, Zain izeneko ondarerako prestakuntza zentroaren etorkizuneko garapena balio handiko lanabes bat izango da, alor honetako profesionalen prestakuntza eta ikerlana garatzeko eta Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo ondare zentroa osoko uler bide horretan txertatzeko.

Museoen Legearen garapenari begira beharrezkoa da tresnak abian jarri eta hedatze, bai museo bakoitzaren kudeaketa errazteko, bai haien erregistroak funts komun batean txertatzeko. Horrek, eta gure museoen antolamendua bezala beste iharduera batzuek, benetako euskal sare baterantz urratsak ematen joatea ahalbidetu digu, 2006ko legeak eskatzen digun bezala. Nola ez, ekinbide hauetan, beste askotan bezala, ezinbestekoak dira foru aldundi, udal eta eragile probatuekiko lankidetzak eta elkarlana, Euskadiko museoen panorama epe laburrean antolatu ahal izateko, eskaintzen errepikapena saihestuz, bakoitzaren ekarpenak eta irizpideak bateragarri eta elkarren osagarri bihurtuz, eta azken 30 urteotan euskal museoen kopurua zazpi aldiz biderkatu duen errealitateak berez dakarzkigun zailtasunei aurre eginez.

Artxibategien kasuan, aurreko Jaurlaritzak prestatutako aurre proiektu bat besterik ez badugu ere oraindik, badago plan bat eta bereziki konpromezu sendo bat ere Artxibategi Nazionala sortzeko, Euskadiko administrazioak autogobernuko azken 30 urteotan ekoitzi dituen dokumentu funtsak jasoko dituenak. Abiapuntu horrekin, Artxibategi Nazional hori erreferente egoki bihurtu liteke beste artxibategi funts batzuk ere baldintzarik onenetan jasotzeko, bai esku probatuetan daudenak bai gure autonomi erkidegokoaren mugetatik kanpo egon arren gure herritarren dokumentu ondarerako garrantzi handikoak direnak.

Nolanahi era den, Artxibategi Nazionalarekin etorkizuneko euskal liburutegiarekin gertatzen den bezalako zerbait gertatzen da, alegia, erakunde publiko eta pribatuek alor biotan garatzen duten iharduera koordinatu, bateratu eta arautuko duen garuna izatea dutela eginkizun nagusi, baina ez bakarrik, eta garun edo zerebro horrek bokazio garbia izan behar du elkarren arteko sarea izan dadin.

Kasu batean zein bestean, biblioteka eta artxibategi nazionalen eszenatoki naturala, hain zuzen ere horregatik ahalegin handia egin beharko da ardura dugun administrazio desberdinen artean euskal dokumentu eta liburu funtsak digitalizatzeko, beti ere kontuan izanik gure kultura herri txiki baten kultura dela, bai, baina interes handia pizten duela munduko lau bazterretako aditu eta ikertzaileen



artean. Funts eta ondare horiek digitalizatzeko, eta jendearentzat eskuragarri jartzeko, helburu hori erdiesteko bidean eraginkortasuna izan beharko da beti gidari, lehentasuna ezarriz gure herriak dituen funts historiko ugarientzat.

Azkenik, euskal bibliotekaz denaz esan batean, garun eta liburutegi digitala izateaz gain ahalegin berezia egin beharko du irakurketa sustatzeko politika eraginkor bat garatzeko. Horretarako, dagoeneko martxan dauden ahaleginen beharra izango du, hala nola katalogo orokor bati eta liburutegi sistema nazional duin bati dagokiena.

Ildo horretatik eza zaigu egokia iruditzen hiri nagusietako liburutegi zerbitzu handiak euskal liburutegien sistematik kanpo egotea, edo euskal sistemaren katalogoa katalogo askoren metaketa izatea eta ez katalogo bakar bat.

Irakurketa publikoarekiko, konpromezua nonbait gauzatu eta frogatu behar bada, gure liburutegi publiko eta eskola liburutegiak egokitzeko ahaleginean frogatu behar da, euskal erkidegoak merezi duen maila egon daitezen.

Jaurlaritza osoak eta kulturari dagokion esparruan, gure sailak 2016an Donostia Europako kulturaren hiriburu izateko hautagaitzarekin dugun konpromezua ekarri nahi dut gogora, proiektu honetan islatzen da donostiarrena bezalaxe euskal herritarra askoren gogoia, egitasmo honetan azpimarra herritarren indarrean egiten da, hiri eta herri arteko sare ehundua den baliabidean, hizkuntza eta hizkera aniztasunean, eta bake garaietako ezinbestekoak diren giza balioetan. Europarako erreferentzialtasun horretan, Donostia ordezkari giza izendatuz Euskal Herri osoak egin behar dugu lan.

Utzidazue orain kulturaren sustapenaren alorrean gidari izango ditugun jardun lerro nagusiak aipatzen, batetik sormenari dagokionez, gure herrian gaur egun dagoen sormen ehunari babes emango diogu adierazpen artistiko desberdinetan, arreta berezia eskainiz, oro har kultura industritzat hartzen diren kolektibo ekoizle guztiei.

Gure kulturaren edukien zatian handi baten sormena pertsona, enpresa eta eragile pribatuen esku dago eta horiek ere laguntza eta babes berezia izan behar dute orain bizitzen ari garen beheranzko ziklo ekonomikoan, sektorearen bolumenetik ahalik eta gehienari eusteko eta, aldi berean, etorkinari begira berritzailez diren ildoak garatzeko.

Puntu honetan, gure babeslana bereziki bi norabidetan zuzenduta egongo da, batetik hizkera berriak babestea eta bestetik talentu berriak babestea.

Lehenari dagokionez, zaila da sormen prozesua garatzea sormen horrek behar dituen egitura eta espazioak eduki gabe, nola diren diziplina desberdinen arteko elkar truke eta elkarganatzea, beraz administrazioaren eginkizunen artean egongo behar du sormenaren fabrika edo lantegi horiek bideratzea eta proiektu horren bideragarritasuna aztertzea.

Eta bigarrenik, talentua da sormenaren elikagai bakarra baina talentuak prestakuntza egokia eskuratzeko ezinbestekoa den prozesu batean txertatu behar du, hortik abiatuta gero eta gorago hegan egingo badu. Hemen, adibidez, aurreratu dezaket gure sailak babesa emango diola arte eszenikoaren goi eskola abian jartzeko asmoari.

Beste alde batetik, kultura plangintza eta parte hartzearen alorrean sarturik, kulturaren euskal planak aurreko Jaurlaritzaren azkenaldian alako esparru bat proposatu zuen sektore desberdinek politika publikoetan izan beharreko parte hartzea bideratzeko, elkarrekin eta pertsonarik errepresentagarrien bitartez eta hori intentsitate eta emaitza ezberdinekin garatu da.

Beharrezkoa iruditzen zaigu gaur egungo egoera berrirakurtzea eta prozesu honek gaur arte erdietsi dituen lorpenak eta erakutsi dituen gabeziak aztertzea, kulturaren euskal kontseiluan, adibidez, kasu bakoitzaren jarraitzeko modua erabakitzeko halako plan estrategiko baten bitartez.

Horretarako, nola ez, batzorde sektorial bakoitzeko eragile desberdinekin kontatu beharko da, sektorekako ohiko banaketan sartzen ez diren errealitate azalkor eta mugakide berriak ahaztu gabe, maila honetan apustu argia egiten dugu sektore bakoitzean errepresentagarritasuna duten elkarrekin indartzeko, garapenerako eta errealitatearen eraldaketa positiborako motore direlako.

Helburu horri begira, gehiegizko mendekotasunean edo otsankerian erori gabe ihardutea eta lan egitea ahalbidetuko dieten hitzarmen eta laguntza neurriak bultzatuko ditugu.

Kultura eta berrikuntzaren gaira etorririk, kultura industria da digitalizazioaren eta komunikabide eta hedabide berrien agerpenaren eraginik handiena jasaten ari diren sektoreetako bat. Industriaren munduan orain arte funtzionatu duen logika hautsi egin da, dagoeneko edukia ez dago loturik halako euskarri bati, logika tradizional horretan gertatzen zen bezala, eta horrek ikaragarritzko iraultza ekarri du industria horien balio katean eta edukien sorrera eta banaketa prozesuetan.

Iraultza horrek, gainera, are eragin handiago izango du kultura txikietan globalizazioaren eta deslokalizazioaren fenomenoek bereziki kalte ditzaketelako. Bide horretan, giltzarri iruditzen zaizkigu honako bi lan ildoak.

Batetik I+G+B, Ikerketa gehi Garapena gehi Berrikuntza alorreko politika berari askoak bultzatzea sektore bakoitzaren barruko normalkuntza komunikazionala sustatzeko, eta bestetik produktu eta eduki berrien bideragarritasun eta zentzua aztertzeke zeharkako ikuspegi bat erabiliz, beste eduki industriekin batera eta ahal den guztietan software askeko erremintak erabiliz.

Beste alde batetik, eta ikusgarritasun handiagoa erdieste aldera, kulturaren atari elkar eragile baten garapena bultzatuko dugu, elkarrentzako plataforma ireki



bat izan dadin, eragile guztien parte hartzearekin, kultura adierazpidean zabaltzeko eta balizko merkaturatzerako, tresna egokia izan daiteke elkar eragintza eta komunikazio kanal berriei egokituta dauden baliiodun edukiak ere hedatzeko, beti ere elkarrizketan eta ikuspegi ireki oinarrituta eta sortzaileek beren lanarekiko dauzkaten eskubideei eta herritarren sor zaien errespetuarekin.

Alor honetan gaudela, bestalde, ezin ditzaket aipatu gabe utzi e-kultura deitzen denak dakarkigun erronka berriak.

E-kultura ez da kultura berri bat, une batean edo bestean saretik igarotzen diren kultura prozesuak baizik. Kultura digitala bai da berria, ordea, eta betiko gure kultura analogikoa odolberritzera etorri da, eta gure artean geldituko betiko.

Horregatik, administratibotik bultzatu beharko dugun e-kultura alorreko politiketan edukiak, balio aniztasuna, komunikazioa, elkar eragintza, baliabide berriak, sare hiritarren dinamizazio –batez ere gazteen artean–, kudeaketa molde berriak eta abar uztartu beharko ditugu.

Hau guztia aldaketa garrantzitsu bat da, etengabe garatzen ari dena eta kulturaren barruan oinarri teknologikorik handiena duten alorrak barne hartzen dituen. Argi eduki behar dugu norabide horretan ikertzen jarraitu behar dugula.

Gazteriari dagokion esparruan, bereziki interesatzen zaigu eztabaida sozial eta politikoko bati ekitea, aurreko legegintzaldian posible izan ez zen legea onartzera iristeko, oraindik beharrezkotzat baitugu euskal gizartearen zati honi eskaintzen zaizkion ekintzak antolatu eta garatzeko.

Era berean, beharrezkoa da Gazteria zuzendaritzaren baitatik zeharreko politikak suspertzea, gazteengan zuzeneko eragina daukaten arazoetan arduraren duten Jaurlearitzaren beste sailekin, osasuna, etxebizitza, herrizaingoa, lana, hezkuntza eta abar elkar lanean aritu ahal izateko. Horri gagozkiolarik, gazteriarako politikaren helburu argi izan behar du beren jatorrizko etxetik ateratzen diren gazteen portzentaia nabarmenki handitzea erkidegoan, eta 25 eta 29 urte bitarteko adinarekin bere familia gunea osatu dutenen kopuruak gora egitea.

Gazteria Legeak, helburu horri begira, gazteriaren euskal sistema bat taxutu behar du, gazteentzako baliabide eta eragileen sare publiko egituratu gisa, haren egitekoa beste sistema publikoen laguntzaz, gazteriarako politiken bultzadarekin gazteen emantzipazioa lortzea izango da. Oro bat, behar diren neurriak hartu behar dira gazteek ere parte hartze aktiboa izan dezaten euskal gizartearen eraikuntzan eta euren bizi proiektuaren garapenean.

Neurri horiek euskal administrazio publikoen gazteria politiken esparruan bultzatu beharko dira, gizarte eragileen lankidetzarekin.

Hori dena beti ere gazteek eragile aktibo gisa duten papera eta arduraren aitortuz, horretarako euskal gazteriari, elkarteetan antolatuta egon zein ez, politika horien

diseinu, garapen eta jarraipenean parte hartzeko eskaintzen zaizkion bideak zabaldu eta hobetu beharko dira.

Bestalde, kirolari gagozkiolarik, aldiz, Kirolaren Euskal Planari berriz helduko diogu, orain arte aurrekoak izan dituen emaitzak behin aztertu eta gero. Alor honetako gure ekinbidea lau esparrutan garatzen diren politiken bitartez gauzatzen da, hots, eskola kirola, errendimendua, lehiaketa eta esparru profesional eta olinpikoa.

Kirol politikaren alorreko gure ekintzak izan dituen ardatz nagusiak kirolak berak dituen balioak izango dira, ahalegina, elkartasuna, osasuna, gizarte kohesioa eta abar, bai eta baliabideen kudeaketa eraginkorra eta hobekuntzari eta berrikuntzari etengabeko arreta ematea.

Arreta berezia eskainiko diogu herritarren kirolgintza suspertzeari ere. Nahi genuke, oro bat, gure eliteko kirolariak behar dituzten baliabideak izan ditzaten, munduan barrena gure kirolaren ordezkari duinak izan daitezen.

Sartuko naiz orain nire agerraldiaren azken zati honetan hizkuntza politikaren alorrean, gure sailak legegintzaldi honetarako erabiliko dituen irizpide nagusiak azaltzera.

Gure planteamenduen oinarri-oinarrion egongo da Euskadiko errealitatea askotariko errealitatea dela gizarte, politika, kultura eta hizkuntzaren ikuspegitik, izaera plural edo askotariko hori behin eta berriz azpimarratu behar dugu, funtsezko baldintza da politika demokratikoaren alderdi guztietan. Ezinbestean txertatu behar da administrazioaren ihardueran eta, arrazoi gehiagorekin, hizkuntza politika diseinatzeke eta gauzatzeko orduan.

Lehen oinarrizko abiapuntu horrekin, gure sailak aurrera eramango duen politikan pluralak ez ezik, pluralistak izatea izango da gure iparrorratza, gure gizartearen errealitatea askotarikoa delako, hain zuzen ere, eta denek aurrera egitekotan elkarren beharra daukagulako, desberdina denaren, gu ez bezalako denaren beharra.

Hortik hasita, gure hizkuntza politikak aintzat hartu eta errespetatu egingo ditu euskal herritarren desberdintasunak, eskubideak eta askatasunak. Politikak, oro har, eta beraz hizkuntza politikak ere, erabakiak hartzea esan nahi du, herritarren eskari desberdinei erantzuteko orduan halako hierarkia bat ezartzea, eta horrek bere ondorioak dauzka hizkuntzaren eta hiztun herritarren baitan, erabaki horiek arau edo lege bihurtzen diren neurrian.

Hau da, politika horrek eskubideak onartzen dizkie batzuei eta horrek beste batzuen obligazioa ekartzen du, horregatik oreka funtsezkoa izango da hizkuntza politika hori ez dadin sar kontraesanean herritar guztionak diren funtsezko beste eskubideekin.



Alde honetatik, ahalik eta adostasun sozial eta politikorik handiena daukan hizkuntza politika garatu nahi dugu datozen urteetara begira, gure gizartean dauden eragile soziopolitiko desberdinekin negoziatuz eta haien partaidetza integratuz, bistan delako hizkuntzaren kontuan ere gizarte demokratiko batean behar den bezala ikuspegi desberdinak daudela, begirada desberdinak.

Bete betean uste eta defendatzen dugu euskal herritar orok duela eskubidea hautatzen duen hizkuntza koofiziala nonahi eta noiznahi erabiltzeko, are gehiago administrazioarekiko harremanetan.

